

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ORMIJANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Zuhaitz lotearen enkantea

Ormijanako Administrazio Batzarrak enkante publikoaren deialdia egin du (gutun azal itxi bi-dezkoa), onura publikoko 643 mendian, La Poza izeneko dermioan, dagoen 114/22 arte lotearena (*Quercus ilex*). Aprobetxamendua, azken likidazioaren emaitzen arabera, 771 estereotan ebaluatu da, 19,16 ha inguruko azaleran.

Ezingo dira bota aprobetxamenduaren eremua inguratzen duten pinturaz markatutako zuhaitzak.

Kontratuaren iraupena. Aprobetxamendua ateratzeko epea hogeita lau hilabetekoa izango da, kontratua adjudikatzen den egunetik aurrera. Lur neurketa irailaren 1etik martxoaren 31ra bitartean egingo da.

Lizitazio mota. 8,00 euros/estereo (BEZa aparte); lizitazioaileek gorantz eginez hobetu dezakete.

Fidantzak. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, lizitazioaz gainera, Ormijanako Administrazio Batzarraren izenean ehuneko 5eko behin-behineko bermea gordailutu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Behin betiko bermea lizitazio oinarriaren ehuneko 15 izango da eta esku-dirutan edo bankuko abal bidez eratu ahal izango da.

Ordaintzeko era. Ehuneko 50 behin betiko adjudikatzen denean, ehuneko 25 zura ateratzen hasi aurretik eta gainerako ehuneko 25a zura ateratzen amaitzen denean.

Agiriak aztergai dauden lekua. Espedientea Erriberagoitiko udaletxean aztertu ahal izango da (Pobesen, Araba kaleko 2 zenbakian), 9:00etatik 14:00ak arte, eta Ormijanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan. Telefonoa: 607425552.

Eskaintzak aurkeztea. Eskaintzekin batera, NANaren kopia eta behin-behineko bermea edo hori ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu behar dira, gutun azal itxian, hogeita sei egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera.

Eskaintzak aurkezteko lekua. Kontzeju aretoa edo Ormijanako Administrazio Batzarraren lehendakariaren etxea. Telefonoa: 607425552.

Gutun azalak irekitzea. Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo larunbateko eguerdiko ordu batean. Enkantea adjudikatu gabe geratzen bada, bigarren enkantea egingo da baldintza berberetan, toki eta ordu berean, aste-bete geroago.

Aprobetxamendua 11/2007 Foru Arauak eta Foru Aldundiak baimendutako baldintza tekniko-koen agiriek arautuko dute.

Ormijana, 2026ko maiatzaren 26a

Lehendakari-errejidorea
AMAYA MARTÍNEZ AYALA